

BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Honako atalean, gure enpresa edo erakundearen jomuga den merkatu-segmentuarekiko izango ditugun harreman motak deskribatuko ditugu.



Gure enpresaren kasuan konbinazio bat egitea erabaki dugu: zerbitzu automatizatua webgunearen bitartez, bezeroek beren eskaerak egin ahal izan ditzaten denda fisiko batera joan behar izan gabe, eta bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua.



Bestalde, komunitateen sorrera bultzatuko dugu bezeroen artean. Modu honetan bezeroek informazioa zabaltzeaz gain, informazio baliotsua lortzen dute. Bertan sorrera-kidetza motako harremana dago, baloreak sortzeko aukera ematen zaiolako bezeroari, enpresarekin batera elkar lanean arituz.